

B23

Porque este librigo...

Ez dakigu *este librigo* guk ezagutzen dugun eskuizkribua den, ala beste zerbait, edo honen zati bat beste zerbaitekin, edo zer; baina, edozein kasutan ere, aditzera ematen du Joan Perez Lazarragak euskarazko poemak argitaratzeko asmoa zuela. Poemak ziren, *coplas* aipatzen baitu bi aldiz, eta euskarazkoak (edo, behintzat, baita euskarazkoak ere), eman duen adibidean (*Encantadora Medea...*) euskaraz diharduelako. Bestalde, guk ezagutzen dugun eskuizkribu-zatian Medeari buruzko pasarterik ez dagoenez, ondorioztatu behar da poema hori, behinik behin, ez dugula ezagutzen.

Eskuizkribuko beste paratestu batzuk bezala, hau ere gaztelaniaz idatzia da, eta, dirudienez, liburuaren amaieran kokatzeko pentsatua zen (*al cabo d’esta hobrezilla*), liburuan aipatzen ziren izen berezien argibide gisa.

Lazarragaren hitzek asko gogorarazten dituzte Juan de Menarenak, bere *Comentario a la Coronación* (c. 1439) liburuan: “Preámbulo quarto. Serán algunas **autoridades** latinas en el siguiente comento, **así métricas como prosaicas**, e de aquesto los non latinos ruégoles non se enojen, ca fázese porque vulgarizado el latín non paresçe el arte del latino metro e destrúyese la prosa. Pero fallarán luego lo que quiere cada una dellas dezir segund siguiente autoridad, e esto se fará en aquellas que es menester declararse o fueren coadjutorias del propósito prinçipal; fallarán las partes latinas que fueren escuras, truncadas e señaladas en la glosa, e en la lectura podrán saber las derivaciones dellas; fallarán las razones o tiempos allegados en las coplas por estenso en la glosa declarado, e sobre los nonbres propios de los que penavan, truncadas partes en la glosa, en la qual verán las vidas, nascimientos, muertes e linajes de aquellos, e leído por tres sesos en los lugares que conviene”. Baina ez dirudi Lazarragarena halako iruzkin luzea izan behar zenik, ohar-argibideen bilduma baino. Lazarragaren testua, dena den, amaitu gabe moztu da, eta ez dakigu gero zer eman behar zuen.

<1200v> Porque este librigo a de andar por el mundo, adonde, aunque aya muchas personas que entiendan mejor que yo lo sabré dezirlo en el contenido, abrá hartas que thernán deseo de lo saber, me paresció no ser cosa superflua, al cabo d’esta hobrezilla, dalle a entender a los tales, sujetándome en todo a los doctos y discretos, para que suplan y corrijan mi ignorancia. Quiero dezir que ban en halgunas coplas algunas autoridades y nonbres castellanos, ansí métricas como prosaicas, las quales, aunque como arriba digo ay muchos que las entenderán, abrá también hartos que no estarán en

qüenta de lo que por ellas o en ellas quiero dezir, por no averlas leydo la istoria y origen dellas, y en lo que toca a lo significado dellas digo:

En la copla ..., a fojas ..., dize: “...encantadora Medeac baño denpora baten Jasoni; beronec bere ezteidio falta¹ gueiago damari, tenpora baten eyon² baño Jasonec Isorgileri”.³ La historia es esta:⁴ [...].

O HAR PALEOGRAFIKOAK:

izenb. Testu honek bi zutabe hartzen ditu, erdikoa eta ezkerrekoa, eta bertso-sorta biren artean dago kokaturik. 1 aya] *ayan* idatzi du lehenago, eta *-n* goitik beherako marra batez tatxatuta dago. 2

¹ *ezteidio falta*: ‘ezin liezaioke falta egin’; *-*idi*- erroko adizkia da, balio potentzialarekin.

*-*idi*- aditza *egin* aditzaren erro supletibotzat jo ohi da (Lafon 1944 eta geroztikako lanak). Izan ere, testu arkaikoenetan, *egin*-ek ez du potentzialeko forma trinkorik erakusten, eta haren ordeztasun erabilizten da. Mendebalde zein ekialdeko testuetan aurkitzen da.

*-*idi*- aditza trinkoki (*Arbore gaichtoac fructu onic ecin daidi*, Leiz Mat. VII, 18), zein “partizipioa + *-*idi*” gisako perifrasiaren laguntzaile gisa agertzen zaigu. Azken erabilera hau mendebaldeko testuetan baizik ez da lekukotzen; eta hori da, hain zuzen ere, espero duguna, *egin* eta *-*idi*- banaketa osagarrian badira, eta “partizipioa + *egin*” perifrasi mendebaldekoa bada: *Mayacean berarra luce da eta sendo, eguitayaren orçac ebagui leydi ondo* (RS 268), *Esan senguida beste gatic / esneydysula trucadu* (Mik TAV 3.1.27).

Lazarragaren eskuizkribuan, bost aldiz agertzen zaigu trinkoki jokaturik, eta gehienetan aditz-lokuzio bateko aditza da: *Ecin faltaric neydio / nic on derechadanari* (A3: 9-10), *apa bat baneydiçu ao goçoan; / bacusu ene fedea firmea dana* (A17: 19-20), *Baneidio bati berba, / palagadu al banegui* (A19: 63-64), *beronec bere ezteidio falta gueiago damari* (B23), *Mendi altuan erurra daydi, / aran baxuan eguzqui* (B31: 1-2). Gainerateko kasuetan, perifrastikoki erabilia da, partizipioa aditz nagusitzat harturik.

Balioari dagokionez, lau baliorekin agertzen zaigu. Gehienetan potentziala adierazten du (zortzi aldiz), baina geroaldiaren balioa ere har dezake (bi aldiz). Behin baldintza irreal bateko apodosian agertzen zaigu, baina hori ez zaigu harrigarria iduritzen, kontuan harturik apodosiak potentzialeko formetarik erator daitezkeela. Azkenik, orain arte ezagutzen ez genuen erabilera batean aurkitu dugu bi aldiz: aginteraren balioarekin; bizkitartean, ez dira agintera “normalak”: orainaldiko forma iragankorren *d*-aurrizkia daramate, baina horrekin batera aginterazko formetan erabili ohi den ezeztapenaren partikula: *ze*. Pentsa daiteke geroaldiko formak direla aginteraren balioarekin erabiliak (oroit Leizarragaren mandamentuko *ez duk hilen* tipoko formak).

² *eyon*: ‘(falta) egion, (falta) egin zion’; *egin* aditzaren aoristo edo iraganaldi burutu zaharra.

³ *Isorgileri*: ‘Sorgini’, Medeaz ari delarik. Ez dugu inon aurkitu *isorgile* hitzaren beste lekukotasunik.

⁴ *La historia es esta*: Juan de Menaren *Comentario a la Coronación* liburuan ere badator Medea eta Jasonen istorioa, baina ez dirudi hau handik hartua denik. Dena den, egitura hau ere (Pertsonaia aipuan + *La historia es esta*: + azalpena) handik hartua dela dirudi. Menarenean honela da: Pertsonaia aipuan + *Estoria e verdad*: + azalpena.

entiendan] -a- ez da ondo ikusten. 8 leydo] aurrean bi letra tatxaturik (agian *ll*). 11 denpora] aurrean *ja-*, tatxatuta.

Nola aipatu testu hau:

Lazarraga, Juan Perez, 2012 [c. 1602], “B23 – Porque este librigo...” [PDF], in G. Bilbao et al. (arg.), *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (2.0)*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Interneten eskuragarri: <<http://www.lazarraga.com>> [Kontsulta: uuuu/hh/ee].



Lan hau [Creative Commons-en baimen baten mende](https://creativecommons.org/licenses/by-sa/4.0/) dago